

Jaizkibelean, egun handia denena

30 urte beteko dira hilaren 8an Jaizkibel konpainiak lehenengoz desfilea zuenetik. 1996ko egun hartatik handitu besterik ez da egin haien kide kopurua, eta jasotzen ari den babesak. 21.27

OSTIRALA, 2026ko IRAILAREN 4a

**Hondarribiko
festa
nagusia 2026**

HONDARRIBIA

• OARSO BIDASOKO •

HITZA



Goieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA

943 634 536 www.goieko.com

Hondarribiko
jaiak
gozatu!



Josu Zabala Erasun, 50 urteko aitortzarako bidea

1976. urtean hil zuten Josu Zabala. Harrezkeroztik, hainbat pauso eman dira bere memoria ez galtzarren. Aurten, hainbat erakunde eta herri eragile mugitu dira.

URKO IRIDOY ALZELAI



Enrique Pascual guardia zibilak Josu Zabala Erasun hil zuenetik 50 urte igaro dira. Txan txangorri taberna alboan izan zen, Guardia Zibilak presoan amnistia- ren aldeko eta Perturren desagertzea aldarrikatzeko manifestazio bat bortizki eten zuenean. Irailaren 8a zen, eta Alardea jada amaituta zegoen. Askok diote Guardia Zibilak itxaron egin zuela, herritar guztiek Alardeko eskopetak etxean utzi arte. San Pedro kalean egin zuten manifestazioa 150 lagun inguruk, eta Guardia Zibilak kaleko bi aldeak moztu zituen, gutxinaka gazteengana hurbilduz, eta haien kontra eginez. Bi tiro jo zizkion Pascualek Zabalarari, eta bertan hil zen. Bost hamarkada pasa

dira hartatik, eta hiltzaileak ez zuen inoiz kartzela zapaldu, kondenatua izan arren, 1977ko amnistiak kaleratu baitzuen.

40. urteurrenean, 2016an, Zabala Gogoan taldeak dokumental bat ondu zuen, eta horren harira erakusketa bat ireki zuten. Helburu argia zuten: Josu Zabalaren memoria bizirik mantentzea, eta gertatutakoa belaunaldi berriei azaltzea. Orain, beste 10 urte pasa dira, eta Josu Zabalaren izena berriro ere mahai gainean jarri da. Gauzak mugitzen hasi dira, eta afera berriro ere prentsan agertzen hasi da. Martxoaren 31n izan zen lehen aldiz, Giza Eskubideen Behatokiak egindako iragarki baten ondorioz.

GEBehatokiak, 50. urteurrena dela eta, adierazi zuen bi iniziatiba jarriko zituela aurten martxan. «Lehena, Memoria Demokratikoaren Legearen barruan, Madrilatik estatuaren biktima bezala identifikatzea da», azaldu zuen martxoan Agus Hernan GEBehatokiko koordinatzaileak. Baina aitortza hori ez ezik, Hernanek adierazi zuen Irungo epaitegietan beste eskaera bat egiteko asmoa zutela, borondatezko jurisdikzioan oinarrituta, auziaren azterketa bat egin zezaten.

Uztailaren 9an eman zuten hedabideek, HITZA haien artean, Espainiako Gobernuaren erantzunaren berri, GEBehatokiak egindako eskaeraren harira. *Josu Zabala biktima gisa izendatu du*





Abuztuaren 29an omenaldia egin zioten Zabalarri, Gazte Egunaren barruan. Aitor Baztarrika

Bi eskaera horiek lortuta, udalei begira jarri zen GEBehatokia, Egiari Zor erakundearekin batera. Irungo Udalarri eskaera argia egin zioten: Irungo Terrorismoaren Biktimen Monumentutik Meliton Manzanasen izena kentzea. 2015. urtean inauguratu zen monumentua, eta beste hainbat izenen artean dago torturatzailearena. «Ez dauka inongo logikarik Meliton Manzanasek bezalako torturatzaile bat bertan egotea, eta Josu Zabalarri haren herrian oraindik aitortza duin bat ez egin izana», esan zuen Egiari Zor fundazioak maiatzean. Hori ez ezik, Zabalak eta Manzanasek bazuten lotura bat, Josu Zabalarren aita Manzanasek torturatu zuelako, pistola bat buruan jarritz, mehatxuak eginez. Maiatzeko udalbatzan Irungo Udalak erabaki zuen Meliton Manzanasi dominak kentzearen alde egingo zuela.

Belaunaldi berrien ardura

Aitortza eta erreparazioa nahi dute Josu Zabalarren memoria lantzen dabiltzanek. Egiari Zor, GEBehatokia, Abotsanitz, Hondarribiko EAJ, Hondarribiko EH Bildu eta CCOO sindikatua daude Espainiako Gobernuari eta Irungo epaitegiei egindako eskaeren atzean. Baina erakunde ofizial eta politikoen atzean herria dago, eta herriak ere mugitzeko ahalmena eta nahia erakutsi ditu. Horren adibide da Hondarribiko

gazteek aurten hartutako erabakia. Urtero, abuztua amaieran egiten den Gazte Egunari gai bat jartzen diote. Azken urtean gaztetxe baten beharra aldarrikatu zuten; duela bi Palestinaren askapena; eta duela hiru Irungo Harrera Sarearekin batera egin zuten kolaborazioa. Aurten, Josu Zabalarren hilketa izan da gaia. «Ardura bat dugula sentitzen dugu. Gure belaunaldietako jende askok ez daki zein zen Josu Zabala, eta zer gertatu zitzaion. Horregatik, transmisio hori egiteko lanketa batean sartu gara, gure ingurukoei haien herrian izandako gertakari garrantzitsu hau azaltzeko», azaldu dute Gazte Eguneko antolatzaileek.

Instagram bidez, hori baita gaur egun gazteengana hurbiltzeko modurik errazena, astero argitalpen berri bat egin dute gazteek. 1976. urteko irailaren 8a azaldu dute, xehetasunez, baina baita urte hartan Euskal Herrian zehar izandako aurrekariak, tentsio momentu latzak bizi izan ziren eta, hala nola Gasteizko martxoaren 3a edota Montejurra eraso. «Zabalarren hilketa gure gurasok edota aiton-amonek kontatu digutelako dakigu batzuek, baina beste askok ez dakite ezer. Horren harira ere, egun horretan amnistiaren alde egin zuten manifestazioan, edota Perturren desagertzea salatu zuten. Zenbat gaztek dakite hori?», esan dute antolatzaileek. Gazte Egunean bertan, abuztuaren 29an, omenaldi bat egin zioten Zabalarri.

Bihar (larunbata), 12:00etan eta San Pedro kalean, Zabala hil zuten tokian, herri omenaldia izango da. ■

Espainiako Gobernuak izan zen HITZA-k egun hartan erabilitako titularra. Guardia Zibilak arrazoi politikoengatik hil zuela aitortu du Espainiako Gobernuak, eta eskubidea dagoela «bere memoria pertsonala, familiarra eta kolektiboa aitortzeko eta erreparazio moral lortzeko eta berreskuratzeko». Era berean, Irungo epaitegiak borondatezko jurisdikzioaren eskaera ere aurrera eramane du, izapidea onartuz. «Horrek ez luke xede gisa Zabalarren hiltzailea auzipetzea —Enrique Pascual guardia zibila, alegia—, baina bide emango lioke jazotakoen inguruko ziurtagiri judizial bat eskuratzeari; egia judiziala», idatzi zuen Josu Alberdi kazetariak BERRIA egunkarian.



San Pedro kalea, 14. - Tel.: 943 64 24 31

ORDUTEGIA:
Astelehenetik
larunbatera:
10etatik 20etara.

Igandetan:
10etatik 14etara.





Urko Iridoy Alzelai

«1996ko irailaren 8an askori bizitza erabat aldatu zitzaigun»

Duela 30 urte, 1996. urtean, 26 emakume Hondarribiko Alardera sartu ziren, Kale Nagusiko soto batetik irtenda. Ez zuten asko iraun, bertako soldaduek kanporatu baitzituzten. Egun horretako uhinak egun arte zabaldu dira, baina emakumeek oraindik ez dute lortu haien herriko jaietan gizonen moduan parte hartzea. Jaizkibel konpainiak bere ibilbidea egingo du aurten, Alardetik kanpo, baina jakinda jada duela 30 urte erein zela lehen hazia, hurrengo urtean Jaizkibel sor zedin. Kotte Susperregi soto hartatik atera zen 1996an, 27 urterekin, eta harrezkeroztik Jaizkibelen egin du bere ibilbidea. Bere alaba Amets Mariskal txikitatik izan da konpainiakoa, kubero moduan hasi zen, ondoren txilibituarekin jarraitu zuen, eta kantinera ere atera zen.

KOTTE SUSPERREGI ETA AMETS MARISKAL JAIZKIBEL KONPAINIAKO KIDEAK

Ama eta alaba dira Kotte eta Amets. 1996. urtean Alardearen barruan sartu zen Kotte, gaur egun arte iraun duen borrokari hasiera emanez. Ametsek txikitatik bizi izan du Jaizkibel, kubero, soldadu edota kantinera izan da.

URKO IRIDOY ALZELAI

HONDARRIBIA

Duela 30 urte atera zineten Kale Nagusiko soto hartatik. Hiru hamarkada jada...

KOTTE SUSPERREGI: Nik uste une horretan ez genuela pentsatu ere egingo 30 urtetan horrela egongo ginela. Gure asmoa egun horretan udaletxeraino iristea zen, eta ez genuen dudarik lortuko genuela. Baina azkenean ez zen hala izan, hiru urrats eman genituen eta sekulakoa *montatu* zen. Hiru pausu aurrera eman eta zazpi atzera bultzatu gintuzten. Momentu gogorra izan zen dudarik gabe. Baina momentua ez ezik, aurreko orduak eta egunak urduritasun askorekin bizi izan genituen. Aurreko gauean, adibidez, ez genuen gure etxeetan lo egin, beste batzuetara joan ginen. Dena ikusita, zaila zen ulertzea zure herriaren aldetik horrelako erantzun bat jasoko genuela, ez genuen espero.

Kale Nagusia zapaldu zenuenean, eta jarrera bortitz horiek ikustean, damutasuna sentitu al zenuen?

SUSPERREGI: Inolaz ere. Batez ere sentitu nuena herriarekiko lotsa izan zen, eta hori oso ondo gogoratzen dut. Gure aldetik, harrotasuna, eta berriro egin beharko bagenu, egingo genuke. Ezin dugu ahaztu aurreko hiru urteetan emakume talde batek hainbat saiakera egin zituela, Alardeko kideei eskaera formalki egiten eta haiei baimena eskatzen. Hiru urtez kasurik egiten ez dizutenean, ez dago besterik, beste zer-bait probatu behar duzu.

Sototik ateratzeko erabakia hartzeak bizitza aldatu al zizuen?

SUSPERREGI: Dudarik gabe. Lagunen arteko harreman asko hautsi ziren, familian ere beste hainbat arazo... Nire izenean hitz egiten dut, baina seguru aski sototik atera ginen guztiek ia berdina bizi izan dugula. San Pedro kalera joatea pentsaezina zen guretzat, eta gutxiago gure denen izen eta abizenekin eta gure etxearen helbidearekin osaturiko paskinak zuhaitzetan jarri ondoren. Oso gogorra izan zen, eta gauza asko ahaztu egiten dira, baina memoria ariketa egiterakoan, konturatzaren zara, bai, dena aldatu zela.

Zure amak dio berari bizitza aldatu zitzaiola 1996an. Zuk, aldiz, txikitatik

bizi izan duzu Jaizkibelgo parte izatea. Jazarpenak, begiradak eta halakoak sentitu dituzu?

AMETS MARISKAL: Nik beti bizi izan dut gatazka. Familian haustura izan zen, baina nik ez nuen haiekin erlaziorik izan. Eskolan izan zen okerreña agian, bai nik eta bai nire ahizpak asko sufritu dugu beti. Nik beti sentitu izan dut eskolan aparte utzi nautela, eta jende askok ez zidala begiratu ere egin. Gogoan dut behin etikako klasean Alardeaz hitz egitea proposatu nuela, eta azkar batean moztu zidatela esanez hori ezin zela egin. Nire ahizpak Donostiara joan behar izan zuen batxilerra egitera, hemen jada ezin zuelako gehiago aguantatu. Egunean bertan ere, Kale Nagusia jendea ikusten genuen, gu iraintzen eta guri behatza ateratzen, eta ondoren gauean guregana etortzen ziren parrandan gu agurtzera. Bai, beti sentitu izan dugu besteengandik kanpo gelditu garena.

Zuen lehenengo alaba, Amets, kubero bezala atera zen txikitan. Gogorra izan al zen erabaki hori hartzea?

SUSPERREGI: Bikoteak eta nik sakon hitz egin genuen horri buruz, eta beldur asko genuen. Jaizkibelen lehen aldiz kuberoak onartu zirenean Amets ez zen atera, beldur hori hor genuelako. Oso delikatua zen, Ametsek 5 urte zituen eta. Baina hurrengo urtean jada atera zen, 6 bat urterekin. Giro oso biolentoa zen hura, eta nik uste hor beldurra gorpuzten dela galdetzean zergatik ume batek bizi behar duen gorroto hori bere aurrean, zergatik jaso behar dituen horrelako irainak. Lehen

ez zuten Kale Nagusia igotzen, pasarte gogorrena zelako, baina halere, guri gogorra egiten zitzaigun imajinatzea zer nolako gorrotoa ikus zezakeen sei urteko ume batek bere begietatik.

Urte horietako zer oroitzapen dituzu, Amets?

MARISKAL: Ez ditut hasierak oso ongi gogoratzen, oso txikia nintzen, baina badakit ez genuela Kale Nagusia igotzen. Esango nuke Biteri eskola ondoan jasotzen gintuztela. Kale Nagusia egin genuen lehen urtean txilibituen artean sartu gintuzten, gu babesteko. Urte hartan oroitzapen argi bat daukat, eta sentitu nuena beldurra izan zen. Jendea balkoietan zartaginak jotzen, jendea oihuka... Horretaz bai gogoratzen naiz, bai, ez nekien hori nire herrian gertatzen zela, eta hor bizitu nuen lehen aldiz.

Nola bizi duzue irailaren 8a familian? Jai moduan, borroka moduan, ala biak uztartuta?

MARISKAL: Nire ustez jaia eta borroka ez lirateke eskutik joan beharko, baina kasu honetan hala da, nire herriko jaietan parte hartzea ukatzen zaidalako. Beharrezkoa da, eta errealitatea gaur egun horrelakoa da. *Tradizio* hitzari eusten ari dira haiek, eta nik matxisimo kontu bat dela uste dut, hau da, ni emakume izateagatik diskriminatzen naute. 30 urte ondoren horrela jarraitzea imajina ezina zen 1996an, eta orain ere bai. Auzia erraza dela uste dut, baina argi dago jende askok ez duela horrela pentsatzen.

SUSPERREGI: Eskubide baten alde ari gara borrokan. Nik ere nahiko nuke

hau denontzako jaia izatea, baina ez dugu besterik, aldarrikatzeko beharra dugu, eskubide bat urratu digutelako. Emakumea naiz, herrikoa naiz, eta horregatik ezin dut nire jaietan parte hartu. Guretzat familian jai egun bat da, eta ondo pasatzekoa. Badakigu gauzak ondo egin ditugula, eta beraz, gure helburua lortzeko borroka horretan jarraitu behar dugu.

Amets, jakinda ama hasieratik hor izan duzula, harro sentitzen zara?

MARISKAL: Askok. Konturatu behar gara haiei esker gaudela gaur egun gauden tokian, eta hori eskertu egin behar diegu nire ustez. Aitak guri beti esan izan digu gauzak ongi egin ditugula, eta ongi egiten ari garela. Kalera harro ateratzeko esan izan digu beti, eta horrela hezi gaituzte bai ahizpa eta baita ni neu ere. ■



Elkarriketa luzeagoa da. Baliatu QR hau edo joan gure webgunera ikusteko: bidasoahitza.eus

OLAGARRO

KULTUR ELKARTEA

Ongi irago herriko jaiak!

Hondar

www.restaurantehondar.com

Zuloaga, 20. HONDARRIBIA. Tel.: 943 64 27 93

Gora

Guadalupeko

Ama!

HONDARRIBIKO PILOTA ESKOLA

KIRULA • HEZKUNTZA • LAGUUNTUNA • TRADIZIOA

Tradizioa bizi, etorkizuna eraki. AUPA PILOTA!

ZATOAZ PILOTA ESKOLARA

TRADIZIOA PROBATZERA!

ZESTA / ESKUPILOTA / PALA MAILA GUZTIAK!

INFORMAZIOA
hondarribikopilota@gmail.com

JARRAI GAITZAZU!
Eskaneatu gure Instagram eta egon adi berriei!



Imanol Saiz Gomez de Segura

«Eman dudan maitasuna bueltan etorriko zait»

IOSEBA AMUNARRIZ LEMAZAINA

IMANOL SAIZ GOMEZ DE SEGURA

Astlehenean jasoko du patroiak herriaren aitortza: Hiri-ko Urrezko Intsignia emango diote (12:30ean, udaletxean). Aurtengo prozesu parte hartzailean bozkatuena izan da Amunarriz. 25 urte daramatza *Ama Guadalupekoa* gidatzen, eta kirolari emandako maitasun hori guztia bueltan jasoko duela azaldu du, pozik.

Nola jaso duzu aitortpena?

Ohore handiarekin jasoko dut intsignia hori. Ilusio handia egin zidan Igo-rreren [Enparan] deiak. Uste dut aitortza honekin eman dudan maitasun hori bueltan etorriko dela niretzako. Hainbeste urte ibili eta gero klubean, 25 lehen taldean eta 33 klubean, une polit zein gogorretan, ederra da horrelako aitortpen bat jasotzea. Herriak maitasun hori itzuliko dit intsignia honekin.

Ez da klubak jasotzen duen lehen Urrezko Intsignia izango, gainera.

Hala da. 2005ean klubak jaso zuen, ederra izan zen hura ere. 2013an ere klubeko Juan Mari Bellok jaso zuen. Eta orain hirugarrena dator klubera. Ohore handia da guretzat.

Kontxako Bandera hemen da, baina baita herriko jaiak ere.

Arraunean hasten zarenean Kontxako Bandera dagoenean badakizu festarik ez dagoela. Gogorra da. Urte osoan zehar asko entrenatzen dugu Kontxa bezalako estropadetan lehiatzeko. Herria gozatzen ikusten dugu, trainerutik. Gurea hori da. Helburu nagusia lehiatzea da, ahalik eta gorenaren egotea bi igandetan.

Eta irabaziz gero, orduan bai, festarako tartea izango duzuela. Kontxa eta herriko festak...

Biribila litzateke. Tokatu zaigu hori bizitzea. Bost alditan irabazi dut Kontxa eta bitan izan da irailaren 8an, egun handian. Ikaragarria izan zen. Egun horretan kolore berdeak elkartzen ditu herriar guztiak, eta haiekin batera ospatzeko aukera dugu. Izugarria da hura bizitzea.

Urte asko eman dituzu klubean. Zer eman dizu arraunak 33 urte hauetan?

Hondarribiarra izanik ederra da nire etxeko klubean bizitzea oso bat ematea. Zorte handia izan dut. Garai oso onetan izan naiz, eta urte hauetan klubak eta herriak asko eman didate. Maitasuna bereziki. Eta jasotako maitasun horrek hemen jarraitzeko gogoak eman dizkit beti. Honaino horri guztiari esker iritsi naiz. ■





EGITARAU OSOA HEMEN

labur.eus.bidasoaagenda



A. Mendizabal

HAURRENA IZANGO DA LEHEN EZTANDA

HILAREN 6AN, 11:00ETAN. Jai Nagusien txupinazo ofiziala hilaren 7ko 12:00etan izango bada ere, aurreko egunean (hilaren 6an) Hondarribiko Pregoi Txikiarekin ekingo diote festen egitarauari. Jaien iragarle izango dira gazteenak, eta kolorez beteko dute Kale Nagusia.



A. Mendizabal

MAHAIAREN BUELTA BILDUKO DIRA

HILAREN 10EAN. Jai Nagusietan ekitaldi jendetsu asko izango dira. Baina mahai baten bueltan bazkaltzeko aukera eman-go dutenak bi izango dira nagusiki, biak ala biak hilaren 10eko 14:30ean. Adinekoek Hondartza kiroldegian egingo dute urteroko haien omenezko otordua, eta gazteen herri bazkaria, berriz, Bentak jasoko du.



HITZA

KONTZERTU ERRALDOIAK BENTAN

EGUNERO. Ohikoa da Bentak kontzertu handiak jasotzea. Honakoak dira aurten-goak: bihar (larunbata, 23:00), Amparanoia eta Ketekalles; etzi (igandea, 00:00) Janus Lester eta DJ Siwanaba; hilaren 8an (23:00), Etzakit eta Cuatro Pesos de Propina; hilaren 9an (22:30), Latzen; hilaren 10ean (23:00) Neomak eta Trikizio; eta hilaren 11n (20:30) Pantxoa eta Peio.

JAIK BIZI HONDARRIBIA ZAINDU.



BERRERABILI



HONDAKINAK
BEREIZI



LURRA GARBI
MANTENDU





Hondarribiko
Udala



**Hondarribian
euskaraz bizi gara!
Jai zoriontsuak igaro!**